LEA-ARTIBAI, LANDA-EREMURAKO ENERGIA TRANTSIZIOKO PLANAREN BIDEAN

Posted on 04/11/2026 by Naider

Category: Albistea
Tags: Energia-trantsizioa, Landa-garapena, Lea-Artibai

Azaroaren 3an, Markina-Xemeinen egin zen **Lea-Artibaiko Energia Trantsizioko Plana** lantzeko lehen lan-saioa. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Lea Artibai Landa Garapenak bultzatutako ekimena da, eta NAIDERek ematen du laguntza teknikoa. **Bizkaiko landa-eskualdeetan mota horretako lehen plana** da.

Planak **landa-eremuaren berariazko beharrak eta aukerak** ditu ardatz. Helburua da energia-trantsizioko jarduketa bideragarriak identifikatzea lau esparrutan: **lehen sektorea eta basogintza, landa-turismoa, mugikortasuna, eta udal-zerbitzu eta -ekipamenduak**.

Ekimena **Lea-Artibaiko Landa Garapenerako Eskualde Programaren** barruan kokatzen da, eta lurraldean dagoeneko martxan diren proiektu eta esperientzietatik abiatzen da.

Saioan, udaletako eta eskualdeko beste erakunde batzuetako ordezkariek identifikatutako aukerak kontrastatu zituzten, eta jarduketa-lehentasunak finkatzen hasi ziren. Prozesuak **azterketa teknikoa eta tokiko eragileen parte-hartzea** uztartzen ditu, elkarrizketen eta lan-saioen bidez.

Datozen hilabeteetan, Planaren helburuak, jarduketa-ildoak eta **proiektu traktoreak** zehaztuko dira, baita eragile bakoitzak hura martxan jartzean izango duen zeregina ere.



